

3 LAU HANKATAN

"Hogeigarren mendea bukatzeaz dagoen honetan zerbaitek ez du ongi funtzionatzen..." **Alberto Ansuategi.**

6 ERREPORTAIA: SAN BARTOLOME ELIZA JAUSTEN ARI DA

Berritu edo konpontzeko asko dauka elizak, baina premiazkoenak, kanpandorra, teilatua eta ubidea dira.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: EZKONDU ALA ARRIMATU?

Ana Beatriz Fernandez:

"Ezkontza bi pertsonen arteko elkartasuna da, maitatzeko eta errespetatzeko egiten duten promesa bat bizitza osorako."

Patxi Gomez Garrido:

"Zeure bikotea ezagutzeko ez dago berarekin bizitzea baino hobeagorik."

12 BERBETAN

"Zenbait gazteri bultzada ematen diogu".

Eduardo Osoro "Katxo".

14 KIROLA:

GAIA: JOKU ESKOLARRAK (II)

ELKARRIZKETA: **Manu Mora:** ESKIA KIROL ELITISTA DA.

16 ELKARTEETATIK BUELTAN

GOIKO-ERROTA: JOLAS-LEKU ELKARTEA

17 KULTURA

Jose Andres Avila

OFIZIOZ KAMARERO, AFIZIOZ ARGAZKILARI.

PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak.....	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak.....	742950
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria.....	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpekotasun Zerbitzua (Anbulatorioa).....	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	740442
PESA (Eibar).....	112131
Taxi Geltokia.....	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Ongizate zerbitzua.....	743736
Udaletxea.....	741050
Udaltzaingoa.....	741394

BESTELAKOAK

Caritas.....	740142
IMI.....	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC).....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea.....	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza.....	740296
Zaharren Biltokia.....	740526

IKASTETXEA

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua.....	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

KOMIKIA



Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkarte
74 16 26

Laguntzailea
Elgoibarko Udala

Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegi

Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu

Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton
Bergara, Edurne Bilbao,
Rosa Iriondo, Jose Inazio
Sarasua

Kazetaria
Ainhoa Lodoso

Maketatzailea
Maite Rementeria

Publizitatearen diseinua
Luis Mari Zubiaurre
Maite Rementeria

Publizitatea
Amaia Leiaristi

Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola,
Joxin Arregi, Belen
Arrizabalaga, Agur Miren
Barandiaran, Lorea
Gorostiaga, Jon Eugi,
Hasier Etxeberria, Maite
Iriondo, KOKOE, Aitor
Lodoso, German
Meabebasterretxea, Susana
Mugika, Jasone Osoro,
Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Andoni Rementeria,
Eduardo Sanz, Aitor
Zabaleta.

Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia

Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

Tirada
3.000 ale

Lege gordailua
1.025 SS-92

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

LAU HANKATAN

Alberto Ansuategi

Txotxongiloak

Aspaldian ez nintzen zuhaitz baten altzoan esertzen segundoak

nola igarotzen diren ikustea baino zeregin gehiagorik gabe, eta horretarako parada aurkitu dudan honetan, burua bete zalantzaz bukatu dut.

Gogoratzen al dituzue haurtzaroko garai zoragarri haiek, maltzurkeriak sorgin eta basajaunen itxura hartzen zuenean eta herriko plazako txotxongi-loetan mutiko ausartak otso gaiztoari astindu ederra ematen zionean? Gaur egungo haurrek, aldiz, ez dituzte honelakoak ezagutzen. Bideo-joko eta telebistaren generazioa (edo "degenerazioa" beharbada) direla esan liteke. Baina, zergatik? Ez al da izango jadanik maltzurkeria sorgin eta basajauntan bakarrik aurkitzen ez delako?

Harritzekoa al da txotxongiloek arrakastarik ez izatea otso gaiztoak mutil ausarta egurtzen duen garai honetan?

Noranahi begiratzen dudala ere mundua atzekoz aurrera doala iruditzen zait eta honezkero ezin izango dut, txikitik egiten nuen legez, nire kezkek argitzeko andereño Fatimarengana jo, denbora zentzu bakarreko errepidea izanik, iraganera itzultzea ezinezkoa da eta.


Halere nire buruan darabilkidan zenbait galdera bil nitzake lerro haueta, eta, irla bakarti batetako naufragoak bezala, botila batetan itsaso zabalera

jaurtiki, inoiz norbaitek eran-tzuna aurkituko zien itxaropenaz. Baina ez dut hori egingo, izan ere amaierarik gabeko istorioa bait litzateke eta garai haue-tan galderak baino gehiago erantzunak behar ditugulako.

Ez dakit guzti hauek nire buruan sortzen diren fantasiak ez ote diren, baina ezin uka daiteke haize berriak dabiltzala, norabide zehatzik gabeko haizeak. Hogeigarren mendea bukatze-ar dagoen honetan zerbaitek ez du ongi funtzionatzen: iruzur egiten diguten agintariak behin eta berriz hautatzen ditugunean, pakearen izenean gudak egiten ditugunean, petrolio justiziaren gainetik dagoenean, gu bezalakoak ez direnei geure arazoan erantzunkizuna leporatzen diegunean eta baita zuen burutik pasatzen ari diren guzti horietan ere.

Gaur egungo haurrek ez dute joko honetan parte hartu nahi. Ez dituzte arauak ulertzen, ezinezkoa baita hauek ulertzea. Beraz, inuzentziaren estalpean babestuko dira, telebistak eta bestelakoek helduen munduan bizi ahal izateko beharrezkoa den gaitz horretaz kutsatu artean.

Kezkak pilatzen eta hitzak agortzen doazkit, eta beldur naiz etorkizuneko haurrek txotxongiloak ezagutzeko aukerarik izango ez duten, baten bantzuk zuhaitz baten altzoan segundoak nola igarotzen diren ikustera esertzen ez diren bitartean behintzat.



Fotero

okindegia
opildegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Gaztetxea

Informazio bideetara zuzentzen gara, GAZTE ASANBLADA berriz ere martxan jarri dela ezagutarazteko: lehenengo urrats gisa Udaletxe-ari zuzendu ga-tzaizkio. GAZTETXE bat sortzeko hainbat baldintza bete beharko lituzkeen lokal bat eskatzeko. Elgoibar-ko gazteak bildu, hitze-gin, eztabaidatu eta nahi dituzten ekintzak burutzeko leku bat.

Udaletxeak Siadeco enpresari agindutako gazte-inkesten emaitzak kontutan hartuz, non gaztediaren behar premiazkoen artean lokalak agertzen diren (%85ak baino gehiagok biltzeko leku bat behar du), ingurugiroaren zaintzea, langabetuei laguntzak, Gaztetxea, ekintzak... etab.

Bere garaian esan zen bezala, inkesta hauek Udaletxean lan-tresna bezala erabiliko ziren;

honegatik, Siadecoren gomendapenak kontutan hartuko direla suposatzen dugu. Batzuk aipatuko ditugu: partehartze eta organizatze propioa bultzatzea, edozein iniziatiba positibori laguntzea, dauden elkarteei laguntza eman (Gazte Asanblada barne) eta berrien sorketa erraztea, lokalak eta subentzioak ematea, lurraren espekulazioari aurre egitea, informazio sexuala eta era guztietakoa eskeintzea, euskararen erabilera sustatzea...

Azkenik Udaletxe-ari gazteon beharrak kontutan hartzea, gure eskubi-deak errespetatuz eta eragiten diguten arazoak konpontzera lagunduz, eskatzen diogu.

Informazio bideei gai hauek behar bezalako seriotasunez hartzeko eskatzen diegu.

Elgoibarko Gazte Asanblada

Ez dago komunik!

Guk arazo hau salatu edota gutxienez aditzera eman nahi genuke.

Elgoibarren larunbatero kanpoko jende mordo eta etortzen da eta ez dakigu burudunak kanpokoak ala hemengoak diren, baina kale guztiak txizaz beteta lagatzen dituzte.

Behin, txiza egiten ari zen bati galdetu nion ea zergatik ari zen kalean txiza egiten eta berak esan zigun ez zeukala beste tokirik egiteko, tabernetako komunak itxita egoten direlako.

Guk pentsatzen dugu, horrelako arazorik ez egoteko, bi gauza egin daitezkeela:

-Tabernetako komunak zabaltzera behartu.

-Herrian komun publiko dexenteak erai-ki.

Bigarreanean, dexente diogunean, ganorazko zerbitzu bat esan nahi

dugu, hau da, pertsona arduradun batekin eta-bar.

Guzti hau martxan egongo balitz, eta jendeak kalean txiza egiten jarraituko balu, orduan, isun bat jarri eta kitto.

Joxean eta Pili

OHARRA:

Eskutitzak idazten duenaren izena, bi abizen, telefono zenbakia eta N.A.N.a izan beharko dute. Argitaratze-rakoan, eskutitzaren egileak hala eskatzen badu, inicialak soilik agertuko dira.

Kritika eta gaitzespen mota guztiak onartuko badira ere, ez da tokirik izango irainduz edo errespetu faltaz idatzitako eskutitzen-tzat.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

GAIEN ORDENA:

- 1992. urteko balantzea.
- 1993. urteko asmoak eta aurrekontua.
- elgoiBARREN aldizkariari buruzko informazioa.
- Galdera-erantzunak.


NOIZ: Otsailak 16, asteartea, arratsaldeko 7,30etan.

NON: Kultur Etxean (Altzola Dorretxea).

Zuzendaritza Batzordea

Gerra zibila baino lehen argitaratzen zen "ESTO, revista del hogar" aldizkaritik atera dugu erretratu hau. 1935. urteko otsailaren 7an Editorial Católica S.A.k argitaratutakoa da eta Jose Alberto Ansola, *Mausik*, laga digu.

Bertan ikus dezakezue, Plazako frontoia gainezka azaltzen zaigu soka-tira froga ikusi eta animoak emateko asmoarekin. Estilo eta teknika punta puntakoak ez badi-ra ere, ahaleginak eta intentzioa ezingo ditugu zalantzan jarri. Ikusi bestela lehenengoak zein lotsagabeki jo duen aurrerantz. Lagunak atzean laga eta kontrarioengana urreratu da hauek beldurtzeko asmoarekin. Honek jartzen duen intentzioa dozena bat lagunek ipiniz gero, eliza bera ere mugituko lukete.



Aste honetan barkatuko diguzue soka-tiralarien izenik aipatu ez badizuegu, izan ere, erretratu orain arte atera dugun zaharrena izanik, bertan azaltzen diren gehienek aspaldi aldegingo zuten gure artetik.

LEIHOETAKO ZIRRIKITUETATIK:

- HOTZA
- HAIZEA
- HAUTSA
- ZARATA
- POLENA



Altzairu inoxidablezko burleteak betirako dituzue.

Edozein leihotarako Instalazio azkarra 4-6 gradu gehiago, etxe barruan.

OBRARIK GABE

SARTZEN BAZAIZU...

glas control

Ubitarte 7. ELGOIBAR

ESKATU AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

74 30 94 - 74 43 54


San Bartolome eliza erortzen ari da

Urteetan zehar, euriak eta haizeak gogor astindu ditu elizako parte bigunenak, eta horren adierazgarri da, denbora laburrean elizdorreko bi apaingarri apurtu eta lurrera erori direla. San Bartolome elizak kalte izugarriak ditu egituran eta, lehenbaitlehen konpontzen ez badira, batek daki urte batzuren barruan zein izan daitekeen elizaren egoera.

XVIII. mendeko eliza hau, Elgoibarrek duen ondare kultural garrantzitsuenetarikoa izango da seguruenik. Horrelako eraikuntzak kontserbatu ahal izateko inbertsio ekonomiko handiak egin behar izaten dira eta gure elizari ere txanda heldu zaio. Herritar talde bat, elizaren egoera enpresa ezberdinekin aztertzen eta kontsultatzen urtebetez



Erabat puskaturik dauden harriak



Dorrera igotzeko eskailerak

ibili ondoren, premiazko berrikuntza behar duenez ohartu dira.

Berritu eta konpontzeko asko dauka elizak, baina premiazkoenak, hiru zati edo atal kontsideratu dira: dorrea, teilatu, eta ubidea.

Ubidea

Eliza atzeko partean, mendiko ur negarra bideratzen duen ubide edo kanala dago. Inguruan eraiki diren etxeen ur zikinrentzako kanalizazio

egokia egin beharrean, elizaren ubide honek hartu behar izan ditu guztiak. Eta noski, horrek umedadez blai egin ditu elizako paretak. Umedade horrek kalte handiak sortu ditu, ez elizako paretetan bakarrik, elizako ezker hegaleko bobeda, zartatua dago hezetasunak jota.

Teilatua

Euriteek egurrezko teilatuan ere utzi dute arras-torik. Elizako teilatua, ia osoa, egurrez egina dago

eta han hemenka itukinak sortu dira. Horregatik, teilatua berria egin behar da, teilak aldatu eta, teilatua sostengatzen duten zuta-beak sitsak janda daudenez, berriak jarri.

Elizaren egoera nahiko kezkarria da, eta dagoeneko ballak jarri behar izan dituzte eliza barruan. Tamalgarria izango litza-teke, ordea, konponketak garaiz ez egitearren kanpoko aldean ere ballak edo heziak jarri beharra.

SARASUA



Salvador Celaya
ITURGINTZA
BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
Errosario 22. Tel: 74 04 94



ANCHUSTEGUI Sa
ZERAMIKAK
Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11
Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behe
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

Premiazko konponketak:

Ubidea: Mendi eta etxeetatik datozen urak kanalizatu, hezetasunik egon ez dadin.

Teilatua: Zutabeak eta teilatua berritu.

Kanpandorrea: Harrizko apaingarriak berritu eta ondo lotu eta barruko aldetik eskilara berria jarri.

Teilatua erortzen ari da Plaza Txiki aldera eta pasiatzen ibiltzen direnentzat arriskutsua izan daiteke.

Kanpandorrea


Dagoeneko, dorrea apaintzen duten bi harri pusketa erori dira. Hori ikusita, elizaren kalteak zenbatzen dabilen taldeak ikerketa bat egin zezan eskatu zion BRUES enpresa donostiarrari. Harrien kontserbazio egoera ikusi ondoren BRUES enpresakoek hainbat harrizko apaingarri erretiratu zituzten. Harri hauek euria eta izotzaren eraginagatik

zartatu egiten dira eta lurrera jausi.

Bestetik, dorrearen barneko aldea ere oso egoera eskasean dago. Egurrezko eskilara biribila 20 bat zentimetro behera etorri da eta, bere orde, burdinezko eskilara jarri nahi dute. Ordu laurdenero kanpai ezki- len bidez elgoibartarroi zer ordu den esan digun erlojua ere termitak janda dago. Honek behera etortzeko arriskua du eta jausiz gero, arkupetara eroriko litzateke.

Egoera nolakoa den ikusita, bi talde eratu dira, bata dirua biltzeko,

Zitzak jandako bigak



Kupularen euskarria

eta bestea alde teknikoaz arduratzeko. Talde hauek irekiak dira eta edozein herritarren laguntza esker onez hartuko luketela esan digute.

Oraindik ez da obren

hasiera data zehaztu, beti ere, diru-laguntzen arabera egingo bailirateke berritze-lanak. Dena den, datozen asteotan 280 emakumez osatutako talde bat, etxez etxe arituko da elizaren egoeraren berri ematen. Argazki, eskutitz eta harpidetza txartel bat banatuko dute Elgoibarko etxe guztietan eta familia bakoitzari, 20 hilabetetan zehar, hileko 900 pezetatako diru-laguntza eskatuko zaio.

SARASUA

SARASUA

Eliza berritzeko diru-iturriak:

Aurrekontu osoa.....	100 milioitik gorakoa
Udaletxeak	aurten erabakitzekotan
Aldundiak	aurten erabakitzekotan (%50a eman ohi du)
Gotzaitegiak	zehaztu gabe
Herritarrek (familiako)	900 pezeta hileko 20 hilabetez
Obren iraupena.....	urtebete inguru

ITZALA *Edergintza*

- *Aurpegi tratamenduak*
- *Gorputz tratamenduak*
- *Masaia*
- *Sauna*
- *Solariuma*

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03

kalamua SDAD.COOP.

GARBIKETA ZERBITZUA

PERTSONA NAGUSIEN

ETA EZINDUEN ZAINKETA.

Tel: 74 22 72 - 74 24 48.

AZPELETA

elektrizitatea

San Frantzisko 51. Tel: 74 12 38

Ezkondu ala arrimatuta bizi?

Zer dago esatekorik ezkontzari buruz esanda ez dagoenik. Urte askoz pertsona bat ezagutu ondoren hartzen den erabaki zaila da.

Ezkontza, bi pertsonen arteko elkartasuna da, maitatzeko eta errespetatzeko egiten duten promesa bat beraien bizitza osorako.

Aintzina, neska bat, lehen aldiz irteten zen mutilarekin ezkontzen. Gaur egun oso ezberdina da; pertsonak erabaki garrantzitsu hau hartu baino lehen esperientzia gehiago edukitzen du beste pertsona batzurekin, berarentzako egokia dena aurkitu arte.

Nire ustez, ezkondu baino lehen elkarrekin bizitzen egoten direnek ez dute beti ondo bukatzen elkarrekin, ez dira beti ezkontzen. Gertatu ohi da elkarrekin bizi den bikoteak haurra eduki-tzea. Orduan, bere lotura apurtzen denean, umeak segurtasuna galtzen du.

Nik uste dut ez luke-tela haurrik izan behar seguru egon arte beraien elkartzeaz, errazagoa delako ezkontza gabeko bikotea banatzea.

Baina ezkontzen direnek, erabaki hori

benetan hartzen dute eta bata besteari guztiz entregatzen zaio. Horrekin ez dut esan nahi senar-emazteak ez direnik banatzen, zailagoa dela baizik. Bikote bat bana-tzeko arrazoiak oso desberdinak dira: beraien arteko ezberdintasun kulturala, soziala edo pen-tsakera mailakoa; baten arazoak alkoholismoarekin edo beste droga batekin lotutakoak e.a.

Laburpen gisa esango dut, bikote baten artean egon daitekeen harremana elkarrekin bizitzeko, ezkondu gabe badaude ez zaidala guztiz ondo iruditzen, parte batek duen guztia eman dezakeelako eta besteak, berriz, eman beharrean, hartu besterik ez, Jendeak esan arren berdin dela ezkondu ala ez, ez da egia, nere ustez; ematen den eraztunak sendotasuna ematen dio harremanari eta hau apurtzea oso zaila da. Ezkondu gabe egindako elkarte, ordea, berehala puska daiteke.

Ana Beatriz Fernandez

Maitatzea ez da ezkontzea. Garrantzitsuena zuk zeuk maite duzun pertsonarekin bizitza konpartitzea da, erdian inongo paperik egon gabe, zeinak bikotea elkartuago egon daitekeela pentsarazten duen.

Azkenengo urte hauetan ezkontzarena modan jarri da, eta jende askok erritual sinpleagatik egiten du eta honek berarekin darama hainbat gauza: soineko zuria, kristoren bazkaria..., beharrezkoa ez den diru botatze bat krisi momentu hauetan. Zeure bikotea ezagutzeko ez dago berarekin bizitzea baino hobeagorik. Bikote asko daude ezkontzarekin ez daudenak ados eta umeak edukitzeko edo umeak edukitzean ezkontzera beharturik sentitzen dira. Hau ez litzateke horrela izan behar, behartuta sentitzen direlako.

Ezkontza bizi aseguru bezala erabiltzen da zure bizitza eta zure senidearenak aseguratzeko modurik egokiena, ezbeharren bat gertatzen baldin

bada.


Egun hauetan seguritate ekonomikoa benetan beharrezkoa da eta, zein modu hobeagoa kristoren pantomima prestatzea baino, gonbidatu pila batekin? Askotan oparria..., beharrezkoa ez den diru botatze bat krisi momentu hauetan. Zeure bikotea ezagutzeko ez dago berarekin bizitzea baino hobeagorik. Bikote asko daude ezkontzarekin ez daudenak ados eta umeak edukitzeko edo umeak edukitzean ezkontzera beharturik sentitzen dira. Hau ez litzateke horrela izan behar, behartuta sentitzen direlako.

Gainera, oso zahar-kitua den gizarte batean bizi gara eta bikoteen bizitza oso kritikak dago eta gehiago oraindik bikote hauek haurren bat edukitzen badute. Arazo hau oso asuntu pertsonala da; bikote bakoitzak erabaki behar du, gizarteak tartean sartu gabe.

Hau nere iritzia da eta horrela konpartitzen dut zuekin, baina bakoitza nahi duena egiteko bere buruaren jabe da, eta nik, noski, iritzi hori errespetatzen dut.


Patxi Gomez Garrido

Ezkondu ala arrimatuta bizi?




Jose Luis Bollar
35 urte, ajustatzailea

Elkarrekin bizi. Ez diat esaten ez nintzakela ezkonduko. Bikotearen arabera izaten da hori, baina beharbada ezkonduko nintzateke.




Jon Gurrutxaga
22 urte, langabetua

Ezkontzak dakarren papele guztia egiteak asko fastidiatuko ninduke. Bikotearekin arazoak sortuko balira ere, errazagoa litzateke, ezkondu gabe egonda, banaketa eta guzti hori egitea.




Arrate Manzidor
31 urte, kiromasajista

Ni ezkondu nago. Gustora ezkondu nintzen; egun hori pasatzearen, seguruena. Ezkontza eguna, benetan polita izan zen. Ezin leike ezerekin konparatu.



Itziar Gil
25 urte, bulegoko lanak

Lehenengo elkarrekin bizi izango nintzateke, eta konbiventziaren arabera ezkonduko nintzateke. Bai, ezkontzea nahiko nuke, hasieran ez baina gero bai.



Aitor Aizpiri
24 urte, langabetua

Ni hasieran behintzat, elkarrekin bizitzen jartzearen aldekoa naiz. Ezkondu, beharbada, beranduago ezkonduko nintzateke, baina hasieratik ez.



Izaskun Iriondo
27 urte, etxeko langilea

Ni hasieratik ezkonduko nintzateke, elizatik. Izan ere, ezkontzeko nago. Ezkontzak ez ditu kristoren obligazioak ezartzen. Elkarrekin bizitzea edo ezkontzea gauza bera da



Urkizu Pasealekua, 11.
(Orbeako Dorrea Lehenengo solairua).
Tfnoak: (943) 12 02 00 - 12 02 04

OSASUNDEGIA

- | | |
|---------------------------|--------------------------|
| 1- Alergiologia | 9- Ortodontzia |
| 2- Kardiologia | 10- Otorrinolaringologia |
| 3- Zirugia | 11- Pediatria |
| 4- Zirugia maxilo faziala | 12- Sikiatria |
| 5- Dermatologia | 13- Radiologia |
| 6- Ginekologia | 14- Traumatologia |
| 7- Laborategia | 15- Urologia |
| 8- Medizina interna | |

JAUREGI

INPRIMATEGIA



KATALOGOAK-LIBURUXKAK
INPRIMAKIAK
TIPOGRAFIA ETA OFFSET
LIBURUDENDA-PAPERDENDA

San Frantzisko, 20.
Tel: 74 13 29

Euskal Eskola Publikoaren aldeko manifestazioa

Euskal Eskola Publiko berriaren aldeko manifestapenerako gonbitea luzatu nahi die elgoibartar guztiei, Elgoibarko Lanbide Heziketarako gurasoek, Batxillergo Institutuko gurasoek eta Elgoibarko San Bartolome Ikastolako Junta Errektoreak.

Manifestazioa otsailaren 13an, larunbata, arratsaldeko 5etan, Bilboko Jesusen Bihotzaren Plazan hasiko da.



Sei pertsona saritu Txankakuaren Gabon zozketan

Txankakua merkatari elkarteak antolatutako zozketaren irabazleak honako hauek izan dira: Sara Fernandez, Arantxa Beitia, Mari Jose Arrieta,

Pilar Riesco, Mari Tere Garate, Migel Canales

Irabazleek 25.000 pta.ko saria jasodute, mila pta.ko txekeetan banatuta.



Foruen Plazako telefono kabinak erre dituzte

Pasa den ostiralean, gaueko 11 t'erdia aldera, su eman zieten Plaza Handiko telefono kabinei. Aldez aurretik gasolinaz igurtzi zituzten kabinak eta sua hasi bezain pronto Udaltzainek Ertzantzari abisua eman, eta sua itzali zuten.

Sua ez zen elbarrituen kabinaraino heldu, baina beste bi kabinak guztiz erre ziren.




OIHALA
eta
MERZERIA
Errosario 8. Tel:74 35 95



JAVI ITURGINTZA
BEROGAILUAK
Iturria tantaka duzula...
74 14 80
Erretxindi 1-4 B




Aitz bizkar
Ardoak
ARDO ETA PATTARRA
Errosario 18
Tel. 74 02 37



Adierazpen askatasuna

25 bat lagun bildu ziren pasa den asteazkenean adierazpen askatasunaren murrizketen aurrean, zenbait alternatiba aurkezteko asmoz. Azkenaldian kartelen auziak jasan duen prohibizioen aurrean, herriko hainbat kolektibok alkateari elkarrizketa bat eskatuko diote honako haiu proposatuz: kartelak orain arte bezala jar-tzen jarraituko dute eta muralak eta pankartak ezartzeko leku jakin batzu eskatuko dituzte, egun batzuren buruan, kartelak eta pankartak kentzeko ardura hartuko dutelarik.




AZKUF

Santi Kortaberria omendua

Pasa den larunbatean, Santi Kortaberriari omenal-dia egin zitzaion, Santa Ageda koroan 50 urtez egin-dako lanagatik. Argazkian, Santik Udalak emandako garaikurra jasotzen dueneko unea.

5.000.000 tako diru-laguntza

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur Elkartek, elgoiBARREN astekariari 5.000.000 pta.tako diru-laguntza emateko hitzar-mena sinatu zuten hilaren 10ean. Hitzarmena Elgoibarko Izarra elkarte-ko lehendakariak, Ales Arrietak eta Elgoibarko Udaleko alkateak, Jose Ignacio Elkoro Iribek sinatu zuten. Argazkian, elgoiBARREN astekaria-ren aurkezpen eguna.



TIK-TAK
HAUR ERROPA DENDA
Errosario 21, 74 17 15

ileapaindegia
San Mazio 4, tel. 702725

PUB

'Zenbait gazteri bultzada ematen diogu'

Obretako brigadaren burua da. Une batez gorpuak atera eta erretzeari utzion eta hamarretakoaz beste egin baino lehen berbetan arituginen Altzolako kanposantuaren atarian. Dударipe, lan on bat burutzeko sabelak ondo asetuta egon behar du!

- Zer da obretako brigada? Eta noiz sortu zen?


- Udaletxearentzat lan egiten dugun jende multzo bat gara. Nire ustez, brigada Udaletxea bera baino lehenago sortu zen, herria birmoldatu, garbitu eta beste hainbat beharri erantzuteko.

- Hasiera horretatik gaurdaino zenbatek egin dute lan brigadan?

- Nik lau urte daramatzat brigadan, baina gazte nintzenetik Ramon Galdos eta Pelayo barrederoa gogoratzen ditut. Orain zazpi lagunek osatzen dugu brigada. Baina bestalde, INEMetik datozenak ere badaude. Momentuan zazpiko talde bat ari da gurekin lanean. INEMek sei hilabetetarako bidaltzen dizkigu langabetuak. Gogoratzen dudanagatik, nirekin hiru urtetan 30 lagun inguru aritu dira lanean.

- Aipatuko al zeniguke brigadak egin duen lan bitxi edo bereziren bat?

Beno, guri poztasun gehien ematen digun lanetarikoa bat jaiak prestatzea edo jantokiak antolatzea da. Lan arina da, erraza. Esate baterako, oso esanguratsua da guretzat erraldoi eta burhandiak jeistea, kalera ateratzea.



"Oso pozik gaude elgoibartarrekin; jendeak badaki zer egiten dugun".

Lan bitxi bat? Ba, Elgoibarraren dauden kolunpixo guztiak guk jarri ditugu. Baina estoldak trabatzen direnean, komunetatik irte den guztia garbitzea ere gure lana da. Beste lan esanguratsu bat... hiru urtetan 350 gorpu atera eta erre ditugu hilerrian.

- Gazte langabetuei lanaz gain beste zeozer eskaintzen al zaie kontratatzerakoan?

- Bai, bultzada bat ematen saiatzen gara. Gazte horiek lan simple batetarako ere balio ez dutela pentsatzen dute sarritan, baina brigada

uzten dutenean gauza asko egiteko gai direla ikustaraztea lortzen dugu. Egia esan, sei hilabetek ez dute gauza askotarako ematen, baina...

- Zer moduz erantzuten dute gazte hauek lanean?

- Beno, denetarik dago. Badaude lanerako gai ez diren batzuk eta beste batzuk, aldiz, oso ondo erantzuten dute. Badaude gero gurekin gelditu direnak. Hor dago, adibidez, Aritza, edozein lan egiteko gai dena. Edo Lourdes, brigadako emakume bakarra, langabeziatik etorri zen eta

ikusten duzu nola moldatzen den lorategiko lanarekin.

- Noiz izaten duzue lan gehien?

- Denek galdetzen digute hori. Nire ustez igande guztietan egin genezake lan, baina hori ez da arazo. Une honetan hamabi edo hamairu lan ditut zerrendan. Badago etxe aurreko baldosinak jartzeko urte bete itxoin behar izan duenik.

- Jende nahikoa al zaudete duzuen lanerako?

- Ez, baina kontutan hartu behar da Elgoibarrek 12.000 biztanle dituela eta logikoki, brigada murriztu bat dagokiola. Guk bada kigu ez garela toki guztietara heltzen, baina pazientzia eskatzen diogu Elgoibarko herriari..

- Zerbait esan nahi al diezu elgoibartarrei?

- Esan oso pozik gaudela beraiekin. Bat edo beste ingeniari gisa hurbiltzen bazaigu ere guk asko eskertzen diegu, jendeak badakielako zer egiten dugun. Kanean geratzen gaituzte egin beharreko lanaz ohartarazteko baina baita eskerrak eman eta laguntzeko ere. Ondo konpon tzen garen taldea gara eta hor daude emaitzak.

Eduardo Sanz

Lurdes Aizpurua

Biak ileapaindegikoa

- Zenbat urte daramatzazu lanbide honetan? Hogeitabat urte.
- Non ikasi zenuen ogibidea? - Nievan hasi nintzen, gero 18 urterekin Donostin urte bat egin neban titulua ateratzeko.
- Zenbat ordu egiten duzu lan? -Segun. 9etatikan 12ak arte eta gero, 3etarik 7ak arte eta ostiralean egun guztia.
- Propinarik ematen dizute? - Batzuek bai.
- Nondik datorkizu afizioa? - Bueno... gustau egiten jata.
- Moztu ala orraztu? - Moztu.
- Klientearen ala pelukeroaren arabera? - Bien artean berba eginda.
- Gazteak ala zaharrak? - Danak.
- Krestadunak ala tximosoak? - Neri normal gustatzen jata, bakoitzaren estilora.
- Zer iritzi daukazu skin-head-en buruez? - Beraie gustatzen bajakue... neri behintzat ez jata gustatzen.
- Gizonak ala emakumeak? - Biak.
- Haizea buruan ibili munduan? - Ez. Pixkat pentsatuta egin bihar dozuzalako gauzak.
- Bularrean ilea duten gizonak atsegin dituzu? - Bai, hombre, a ver...
- "El hombre lobo" ala "Lassie"? - Txakurrana.
- Ilerik ba al daukazu mingainean? - Ez.
- "Ilea hartu" ala adarra jo? - Batzutan, adarra jo.
- Orrazkera erotikorik egitea ez al zaizu bururatu? - Ez.
- Eta txakurra ileapaindegira eramatea? - Ez. Mania diet txakurrei.
- Inoiz burua galdu al duzu inori ilea mozten? - Keba, ez...
- Nori moztuko zenioke ilea? - Konkretuan ez dakit nori.
- Eta burua? - Inori ere ez.

Lorea Perez de Albeniz

BERTSOTAN

**Baserria ala kalea,
zer da hobea?**

Doinua:

Euskal Herritik aparte

Baserria edo kalea,
bien lana ta nekea.
Batean beti lanez presaka,
bestean pakea.
Lantegietako kea,
ta aitzurraren kolpea,
ez da batere gauza erreza
bat aukeratzea.

Soro ta animalia
zimaurra eta eulia,
handikan dator beharrezko dan
jateko alia
jaiotetxean zalia,
hango hainbat familia;
baina gu nola kaletar geran,
hartzen det kalia.

Arnaitz Gorriti

**UDARRI
BERRI
ELGOIBAR**

GARRAIOLARIEN IKASTAROA

MERKANTZIA, BIDAIARI, NAZIONAL, NAZIOARTEKO
ETA AGENTZIA TITULUAK

GIDA BAIMEN GUZTIAK

Toribio Etxeberria 5, Eibar. TEL: 70

TELEFAX PUBLIKOA
FOTOKOPIAK
ESKOLARAKO MATERIALEA

**GOXDEN
PAPERDENDA**

Pablo Irureta

San Frantzisko 52. Tel:74 02 40

Gipuzkoako Judo Txapelketan, brontzezko medaila Elgoibarrera

Pasa den igandean Errenderiko polikiroldegian ospatu zen Gipuzkoako Judo txapelketan, Elgoibarko *Ibai gimnasio* taldeko den Alaitz Bastidak, 15 urteko gazte elgoibartarrak, brontzezko medaila lortu zuen 72 kilotik gorako mailan.

Honako hau Alaitzek parte hartu duen lehendabiziko txapelketa da, eta oraindik ere gaztetxo den arren, entrenatzen jarraitzen badu, etorkizun haundiko judoka izan daiteke.

Ibai taldeko Merce Rey judoka ere ondo aritu zen txapelketan, baina brontzezko medailagatik borrokatu arren, esperientzia ezak medaila galdu arazi zion azken momentuan. Datorren igandean, 15 urtetik beherako txapelketan parte hartuko du *Ibai gimnasioko* mutil taldeak.

Ego-Tokiko bost korrikalari Euskadiko Txapelketan

Igandean, Gasteizen egingo den Euskadiko Kros Txapelketan Ego-Tokiko lau korrikalarik, Junior txapelketan hartuko dute parte eta batek, beteranoen mailan.

Alberto Revuelta Euskadiko txapeldun titulurako faboritua da eta Carmen Pereak postu ona lortzeko esperantza du. Javi santamaria eta Isabel Ruiz korrikalari elgoibartarrak ere bertan izango dira, eta Julian Garcia, beteranoen mailan.



Manu Mora:

"Eskia kirol elitista da"

Madrileko INEF-etik Hezkuntza Fisikoan Lizentziatua da eta aspalditik, eski irtenaldiak antolatzen ditu Astun, Formigal, Baqueira eta Andorrara.

-Jende asko joaten al da eskiatzera? -Duela bi urte arte, autobusa goraino betetzen nuen, baina azkenaldian, jendea Frantziara joaten hasi da eta egoera ekonomikoa ere ez da hobereena.

-Zenbat diru kostatzen du astebukaera bat eskiatzen pasatzeak? -Aurtengo prezioak 10.000 pezeta ingurukoak dira bidaia, pentsio erdia eta erremon-teak barne. Baqueiran eskiatzea garestiagoa da, astebukaera 15.000 pezeta inguruan dabil, baina zerbitzuak ezin dira besteekin konparatu.

-Zuk zeuk, eskiatzen al duzu? -Bai, baina ez naiz eskia-tzaile porrokatua. Ez naiz eskia-tzeagatik arriskatzen diren horietakoa, disfrutatu egiten dut eskiatzen.

-Taldean ala bakarrik eskiatzea gustatzen zaizu? - Taldean gehiago disfrutatzen duzu, barre ugari izaten da. Eskiatzearen onena, après-eski deitzen dena da. Oso giro jatorra egoten da.

-Eskia, dirudun eta "pijoen" kirola al da? -Bai, elitista da. Norbaitek gaizki har dezake hau, baina eskiatzera joaten den jendearen artean, "pijo" multzo handia dago. Modako kirola denez, badaude egunero "modelitua" aldatzen dutenak, astero beraz, zazpi modelito. Badago, kotxean portaeskiak izan eta eskiatzera joaten ez dena. Orain oso modan dago, eguzkitarako koloretako krema ematea. Badago eguzkia hartzera soilik joaten denik ere.

Adina: 34

Eskiatzen azkenekoz: San Anton Zubian. Istripurik eskiatzen: Behin belauneko zaintiratu bat. Eskiatzetik gustokoena: Eskiatzaile jatorren arteko giro jatorra. Gorrotatuena: Tontakeria. Eskia ala judoa: Judoa, dudarik gabe.

INTERIORES

SUKALDEAK ETA BAINU
ALTZARIAK
ATE TOLESGARRIAK
BARRUKO ARMAIRUAK
DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea. 20870 ELG

PETUNIA

Modak

Errosario 12, tel: 74 16 48

batzokia
Jatetxea-Taberna


P. Muguruza 8. Tel: 74 08 21

Joku eskolarrei errepasoa (II)

Duela 20 bat urte joku eskolarrekin hasi zen tradizioak lehen bezain indartsu dirau. Baina urteen esperientziak ekarri du hobekuntzarik, noski: orain kirol instalakuntza gehiago dago; baliabideez zer esanik ez, eta guztia Foru Aldundiak koordinatzen du.

Are garrantzitsuago da agian, haurren partaidetza lehen adinakoa dela. Elgoibarko hiru eskoletako haurren %90ak, guztira 925 haurrek, hartzen du parte larunbatero kirol kolektiboren batean, futbola, saskibaloia edo eskubaloian. Alebin eta benjaminek, neskek zein mutilek, derrigor egin behar izaten dituzte hiru kirol hauek. Hauezaz gain, atletismoa, xakea, txirrindularitza, mendizaletasuna, esku pilota eta udaberri aldera teniseari jolasteko aukera ere izango dute.

Herri mailako lehiaketan, bi hilabetez jarduten dute kirol bakoitza praktikatzen. Urrian hasi-



Gaztetxo hauek argi uzten dute futbola ez dela mutilen kirola soilik.

ta, herri mailako fasea jokatu ondoren, eskualde arteko txapelketaren txanda izaten da, eta maiatzaren bukaeran Donostian Gipuzkoako eta azkenik Euskadiko txapelketak jokatzeko dira. Elgoibarrek pasa den urtean hainbat txapelkun eman zituen:

- Futboleko infantil mailako mutilen taldea, Gipuzkoako txapelkun.

- Eskubaloiko alebin mailako nesken taldea, Euskadiko txapelkun eta mutilen taldea Gipuzkoako txapelkun.

Aurten ere, oso ondo dabilen futboleko nesken Ikastolako talde

batek, pasa den urtean Euskadiko txapelkun izatea lortu zuen. Hauek zelai handian jokatzen dute eta aurten kadete mailara pasa dira.

Eskoletako haurrez gain, Lanbide Heziketarako Institutuko kadete eta jubentilak ere, joku eskolarren antolamenduaren barruan daude. Lanbide Heziketarako Institutuan 10 talde daude kadete mailan eta 2 talde jubentiletan.

Gaurreguneko joku eskolarrak, oinarrian, lehengoak bezalakoak dira, hasieran jokatzen zuten haur haiek bezala, hazi egin dira, baina badaude haien erreleboa hartu dutenak. Hona hemen bi adibide:

Nik futbolian jokatzen dut. Gure ekipoa nahiko ona da. Joan zen urtean Gipuzkoako semifinaletara heldu ginen eta bigarrenak gelditu ginen. Horretarako gogor entrenatzen dugu, asteen bi aldiz. Baina beste kirol batzuk ere gustatzen zaizkit, esku pilota adibidez".

Igor Fernandez
12 urte.

Nik saskibaloian, futbolean eta eskubaloian jokatzen dut. Orain dela gutxi saskibaloiarekin bukatu dugu eta eskubaloian jokatzen hasi behar duen. Joan zen urtean azkenak gelditu ginen kirol guztietan, baina orain irabazten ari gara. Beste taldekoek bazilatzen digutenean ostikoak ematen dizkiegu".

J.Manuel Angulo
11 urte.




Goiko Errota: Jolas Leku Elkartea

Hasieran diskoteka egiteko lokala

bazen ere, gaur egun jan eta edaneko elkartea dago bertan. Goiko Errota elkartera sartu eta gauza batek erakartzen du bertara doanaren arreta: ezkerraldera, 100 urte izango dituen errota-gurpil bat dago.

Mendarotik ekarritakoa omen da eta egun duen kokapena kasualitatearen fruitu da. Erroberak ihes egin eta horrela gelditu zen. Nahitara ere, ez dakit politago jarri ahal izango zuten.

Izenak dioen bezala, elkartea baino lehen, errota bat zegoen bertan eta egun, errotaren ubidea elkarte azpitik pasatzen da. Orain dela 24 urtetik hona, ostiralero eta inoiz hutsik egin gabe, hiru kuadrila afaldu eta hitzegiteko batzen dira. Horrela, 1979. urtean beraien elkartea sortzea erabaki zuten. Harrez



A7K11F

Hona hemen Goiko Errota elkartea sortu zuten hiru huadrilak 1970eko uztailean.

geroztik, urtero, martxoaren lehenengo domekan, elkartearen sorrera ospatzen dute.

Afariak prestatzeko turno sistema berezia dute. Norbaitek afari batera hutsegingo balu eta abisurik eman ez, multa edo isuna jartzen zaio. Urte bukaeran, batutako diruaz, denontzako afaria prestatzen dute.

Urtean zehar, hainbat ekintzatan parte hartzen dute Goiko Errotako kideek. Gabon Zahar

feriako Gazta lehiaketaren antolatzaile dira, eskualde eta Estatu mailako lehiaketa gastronomiko askotan hartu dute parte, eta sariak irabazi ere bai. Euskal Telebistako Zopaundi programako elkarte txapelketan 3. postua lortu zuten 1984-85. urteetan.

Udazken aldera, elbarrituentzako bazkaria prestatzen dute, eta garai batean San Bartolome jaietan jubilatuentzako bazkaria atontzen zuten.

Izugarrizko lana izaten omen zela esan digute, 280 pertsonantzako arrain-zopa prestatzea San Bartolome jaietan murgilduta...

Goiko Errota elkartearen, Elgoibar duela 75 urte nolakoa zen ezagutzeko aukera ezin hobe dugu. Maalaldea, Txarri-duna jatetxea eraki aurretik nolako zen jakin nahi duenak, edo "Bar Amistad" ezagutu ez duenak, bertara hurreratu besterik ez du.

FELIX ZOPA (1992ko Vichy catalan txapelketaren irabazlea)

OSAGAIK:

- tipula 1, zatitua
- 4 piper berde, zatituak
- 150 gr. txorizo, zatitua
- 100 gr. urdaiazpiko, zatitua
- pistola 1
- 150 gr. tomate prijituak
- gindila 1, nahi bada.

NOLA EGIN:

Olioak kazuelan jarri, eta tipula eta piper txikitua bertara bota. Tipula doratu baino lehen txorizoa, urdaiazpikoa eta tomate gehitu eta 5 minutuz egiten utzi.

Ondoren zopakoa eta ura bota, eta 40 minutuz egosi su txikian. Gatza bota, eta guztiz egosi baino 10 minutu lehenago, usaingozoko brandy kopatxo gehitu.

FITXA TEKNIKO

Sorrera urtea:

1979ko martxo

Presidentea:

Ignacio F. Jauregi

Bazkide kopurua: 40

Berezitasuna:

Gazta lehiaketa

Urteko kuota: 20.000

Helbidea:


Antonio Arrillaga 12

Ofizioz kamarero, afizioz argazkilari


Jose Andres Avilak bederatzi urtez kamarero lanetan ibili ondoren, musika gorroto duela aitortu digu. Argazkilaritza ikasketak eta erosi berri duen kotxea ordaindu ahal izateko barra atzean lan egin behar izaten du, baina inoiz argazkilaritza bizi izateko esperantza dauka. Hilaren 16a arte, Kultur Etxeko erakustaretoan egongo dira ikusgai, berak egindako 30 argazki.

Duela sei bat urte kamara besapean hartu eta gauzei erretratuak ateratzen hasi zen. Hasieran, detaille eta objektu txikiak ateratzen zituen, baina beti gauza bera erretratzen zuela konturatu zenean, paisaiak eta horrelakoetan fijasen hasi zen. *“Niri asko gustatzen zait nekazal mundua eta aintzinako gauzeekin lotuta dagoena. Orain erakusketan dauzkadan erretratuak pasa den udan atera nituen, Galizian oporretan nengoela”.*

Orain argiztapena eta aurpegiak lantzen ditu, baina gorputzarekin lan egitea da gehien atsegin zaiona. *“Gorputz biluziak, gizon zein emakumearenak, baliabide asko eskaintzen dio argazkilariari. Argia, modu batera edo bestera erabillita lortu dezakezun efektua oso ezberdina da. Eta gorputza da hain zuzen ere, argiarekin jokatze-ko daukazun euskarririk onena”.*



AVILA



Jose Andres Avila
23 urte Eibarko Tupi-Azpi tabernan dago kamarero
Formato haundi eta ertaineko argazki kamareei buruzko espezializazioa egiten ari da
Aisialdian, irratiko programa kulturalak entzun eta zinera joatea gustatzen zaio
Gehien gustatu zaion pelikula “El Silencio de los corderos” izan da eta dagoenekoz, bost aldiz ikusi du Gerrako erreportari grafikoa izatea gustatuko litzaioke.



13 Larunbata

16,15 FUTBOLA

Elgoibar-Real Sociedad B
Tokia: Lerungo futbol zelaia

19,30 ZINEA

"La Marrana"
Zuzendaria: Jose Luis Cuerda
Aktoreak: Alfredo Landa eta Antonio Resines.



"La Marrana"

Amerikaren aurkikuntza aitzaki hartuta, garaiko Espainiaren miseria erakutsi nahi du. Protagonistak, barrutik hutsalak diren bi morroi zikin eta narraz dira. Bartolomeri (Landa), Tunezen preso egon ondoren, odolostea jatea soilik axola zaio. Ruik(Resines), nahi duen gauza bakarra, bere lagun mina den txerria ez kentzea da. Gatza falta zaio pelikulari baina barre egiteko aukera eman dezake.



14 Igandea

16,30 ZINEA

"Los Flodder en America".

19,30 ZINEA

"La Marrana"

15 Astelehena

9,30- 15,00 ZINEA

O.H.O.ko goi zikloko haurrentzat, "Batman vuelve"

Antolatzailea: Irudi biziak

Tokia: Herriko antzokia

19,30 ZINEA

"La Marrana"

16 Asteartea

19,30 BAZKIDEEN URTEKO BATZAR OROKORRA

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra
Tokia: Kultur Etxea

17 Asteazkena

20,00 IKUSENTZUTEZKO EMANALDIA

Antolatzailea: AEK, KUTXAren babesarekin.

Gaia: "Euskal Herria, lanetik festara", **Javier Juanesen** eskutik.

Tokia: Kultur Etxea

18 Osteguna

EGUEN ZURI EGUNA

20,00 IKUSENTZUTEZKO EMANALDIA

Antolatzailea: AEK, KUTXAren babesarekin.

Gaia: "Abaltzizketako Ihauteria", **Javier Juanesen** eskutik.

Tokia: Kultur Etxea

HARPIDETZA TXARTELA

elgoi**BARREN** herri astekaria, **DOHAINIK** , astero buzoian jaso nahi baduzu bete harpidedun txartela eta elgoi**BARREN**era bidali edo deitu telefonoz.

IZENA:.....

ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

HERRIA:.....

TEL:.....

elgoi**BARREN** astekaria, Ubitarte 4 behea.(20.870) Elgoibar
TEL: 74 16 26

TXANDAK

FARMAZIAK:

13, larunbata: YUDEGO

14, igandea: YUDEGO

15, astelehena: **BIDASOLO**

16, asteartea: **BIDASOLO**

17, asteazkena: **BIDASOLO**

18, osteguna: **BIDASOLO**

19, ostirala: **BIDASOLO**

OKINDEGIAK:

14, igandea: **IZAGIRRE**



Etxebizitzak

Lokal edo gela baten bila nabil, artisau lantegi bezala erabiltzeko.

Deitu: 74 27 12 . Trini

Galdutakoak

Udaltzaingoak egun hauetan jasotako gauzak:

- Urrezko eskumuturreko bat
- Eguzkitako betaurrekoak
- Emakumezkoen diru poltsa
- Giltzak.

Duela hilabete Samsung AF-200 kamara automatikoa galdu nuen Madarixa inguruan.

Inork aurkitu izan balu, deitu mesedez 74 02 09

Lana

Tituludun irakasleak O.H.O.ko klase partikularrak ematen ditu.

Alazne Tel.:74 28 53

"Modulo 3 de Fabricación Mecánica" ikasketak amaituta lan bila nabil.

Jon Etxabe Tel.: 74 06 19

Aseguru aholkularitzak KOMERTZIALAK behar ditu.

San Bartolome, 15 behea. (San Bartolome eta Errosario arteko pasalekua)

Salerosketak

ZODIAK bat saltzen dut. Yamaha, 5 zalditako motorra. Neurriak: 3 x 1. Prezioa: 125.000 pta. **Tel.: 19 92 43 (Juanra)**

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioaz hitzegitekotan. **Aitor: 74 22 74 Egun osoan zehar.**

Nintendo Kontsola bat saltzen dut. AUKERA!! **Tel: 74 23 27**

Kontaktuak

21 urteko neska kuadrila bat gara eta harremanetan jartzea gustatuko litzaziguke aldizkari honetara idatzi duzuen 23 urteko mutilekin. Guk ere zuen arazo bera daukagu, nahiko lotsatiak garela; **beraz, idatzi erantzuna aldizkari honetara.**

Zu Pitufo, noiz emango didazu zeuk bakarrik eman diezadakezun hori? Badakizu non aurki nazarkezun. (lagun bat).

Orrialde honetako iragarkiak doan dira.
Testua idatzi eta bidali elgoiBARREnera.

TESTUA.....

.....

.....

Ubitarte 4 behea, 20870 Elgoibar tel: 74 16 26

ARROZTEGIA

**ETXEBIZITZETAKO ERREFORMAK
LEIHO ISOLATZAILEEN FABRIKAZIOA**

ETA INSTALAKUNTZA

**Fixo edo oszilakorrak,
Egurrezko nahiz mistoak
(Aluminio eta egurrez
edo brontze eta egurrez)**

BULEGOA:
Ubitarte 2 behea.
Tel 74 13 33

**AURREKONTUAK
KONPROMEZURIK GABE**

LANTEGIA:
Santa Ana 16.
Tel. 74 29 94



**24 orduz
zuekin**

Arrate 212 (20.600) Eibar
12 01 61/73 Fax 12 01 73



Pub PELOUSE

San Frantzisko, 43
Tel: 74 20 40



San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

GOLF berria: Kotxe honetaz asko idatzi da.

Autorik Seguruena

Urteko autoa European

Zatoz eta GOLF batekin irtengo zara.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR